




2011

TXOSTENA

Igaroaldiko jarduerak antolatzeari begira egon den arau-aldaketaren ondorioz, bai Kiroleskola bai kirol-federazioak ere behartuta egon dira 2011. urtean inoizko entrenatzaile-ikastaro kopuru handiena eskaintzera, gaur egungo prestakuntza-eredu ofiziala indarrean jarri zenetik, horrela ikasleei beren ikasketak amaitzeko aukera emateko.

Bere langileengan oinarritutako kudeaketa-eredu baterako aldaketa egin ondoren, Kiroleskolak ikusi du nola 2011ko gastuak % 40 murriztu diren 2010aren aldean (eta % 46 2009aren aldean), eta, guztiarekin ere, jarduera eta matrikula-kopuruari eutsi bakarrik ez, handitu egin da, dezente handitu ere.

Bestaldetik, Kiroleskola ahalegin bat egiten ari da EAEn egiten diren bere jarduera propioak eta beste kirol-entitate batzuek antolaturikoak zabaltzeko, eta horretarako garrantzi handiagoa eman dio bere informazio-buletinari, alegia, maizago plazaratzen du eta prestakuntza-eduki gehiagoz hornitu du.



1. HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

5



2. BALIABIDEAK

2.1. Giza baliabideak

7

2.2. Baliabide materialak

9

2.3. Informatika-baliabideak

9

2.4. Instalakuntzak

10

2.5. Baliabide ekonomikoak

12



3. PRESTAKUNTZA

3.1. Prestakuntza ofiziala (Igaroaldia)

14

3.2. Etengabeko prestakuntza

24



4. KUDEAKETA

4.1. Hitzartutako erakundeak

29

4.2. Meritu, eskarmentu eta aurreko prestakuntzen aitormena

30

4.3. Ikuskaritzak

31

4.4. Komunikazioa

31



5. LABURPENA

5.1. Estatistikak

34

5.2. Ondorioak

37



**HELBURUAK
ETA FUNTZIOAK**

1. HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

Ekainaren 11ko, 14/1998 legeak, ondorengo funtzioak ezartzen ditu Kirolaren Euskal Eskolarentzat:

- a) Kirol teknikariak prestatzeko programak planifikatu eta koordinatu.
- b) Kirol federazioen programa espezifikoaren arabera, zuzendariak eta epaileak prestatzeko programak planifikatu eta koordinatu.
- c) Kirol arloko ikerketa teknikoen programak sustatu eta bultzatu.
- d) Kurtso, zentro, titulazio eta interesgarri diren beste informazioen erregistroa sortu eta kudeatu.
- e) Kirol arloko azterlanak ezagutaraztea.
- f) Kirol dokumentazio zerbitzu bat antolatu.
- g) Kirol teknifikazio kurtsoak, mintegiak, hitzaldiak eta gainerako programak antolatu edo egin.
- h) Teknikariak eta epaileak prestatzeko programetan, kirol-federazioei eta beste zentro batzuei aholkularitza eman.
- i) Araudiz ezarri ahal zaion beste edozein.



BALIABIDEAK


2. BALIABIDEAK

2.1. GIZA BALIABIDEAK

Kirol Zuzendaritzako bi langilek daramate Kirol eskolaren kudeaketa lana, teknikari bat eta idazkari bat.

Prestakuntzako jarduerak antolatzeko, unean uneko irakasleen kontratazio puntualetara jotzen du Kirol eskolak, zerbitzuak eskaintzeko sistemaren bitartez.

Hona zein den Kirol eskolaren organigrama:



Irakasleak

Ondorengo taulak Kirol eskolak sustatutako bloke komunitan klasea eman duten irakasleak jasotzen ditu.

Prestakuntza-jarduera	ARLOAK			
	Oinarri Biologikoak	Entrenamenduaren T ^a eta P ^a	Jarrera eta Ikaskuntza	Antolakuntza eta Legeria
I MAILA				
2011-BA-ER-1M-OR-KE-01	Egia, O.	Mentxaka, J.	Otero, M.	Fernández, J.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-02	Egia, O.	Mentxaka, J.	Rz de Luzuriaga, A.	Uribealago, I.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-03	Azkarate, H.	Muriel, X.	Olagoi, A.	Uribealago, I.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-04	Egia, O.	Mentxaka, J.	Otero, M.	Irurzun, K.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-05	Egia, O.	Mentxaka, J.	Otero, M.	Fernández, J.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-06	Arratibel, I.	Muriel, X.	Rz de Luzuriaga, A.	Uribealago, I.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-07	Egia, O.	Mentxaka, J.	Rz de Luzuriaga, A.	Fernández, J.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-08	Oceja, S.	López, I.	Manso, J.	Azkorra, M.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-09	Arratibel, I.	Berrostegieta, A.	Olagoi, A.	Osés, B.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-10	Rubianes, J.	Mentxaka, J.	Otero, M.	Fernández, J.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-11	Oceja, S.	López, I.	Manso, J.	Azkorra, M.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-12	Rubianes, J.	Mentxaka, J.	Rz de Luzuriaga, A.	Osés, B.
2011-BA-ER-1M-OR-KE-13	Rubianes, J.	Mentxaka, J.	Rz de Luzuriaga, A.	Osés, B.
ROTAZIOA	5	4	4	5
II MAILA				
2011-BA-ER-2M-OR-KE-01	Rubianes, J.	Calleja, J.	Rz de Luzuriaga, A.	Fernández, J.
2011-BA-ER-2M-OR-KE-02	Oceja, S.	López, I.	Manso, J.	Azkorra, M.
2011-BA-ER-2M-OR-KE-03	Rubianes, J.	Calleja, J.	Rz de Luzuriaga, A.	Fernández, J.
ROTAZIOA	2	2	2	2

Aurten 18 irakasle egin dute lan Kirolekolak antolatutako bloke komunetan.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	TOTAL
Nuevo profesorado	13	9	3	2	3	3	5	38

Etengabeko prestakuntza-jardueretan, ondorengo irakasleen laguntza izan dugu.

Asier Viteri	Iñigo Ugarte
Julen Iturbe	Naiara Pérez de Villarreal
Borja Osés	Koldo Irurzun
Javi Aldazabal	Juantxo Landaberea
Imanol Ibarrondo	

2.2. BALIABIDE MATERIALAK


Bulegoko materialaz gain, Kirol eskolak ondorengo oinarritzko materiala erabiltzen du bere prestakuntzak aurrera eramateko:

- 3 ordenagailu eramangarri.
- 2 proiektore.
- Entrenatzaile ikastaroetako apunteak.
- CDak, apunteak eta beste hainbat dokumentu formatu digitalean banatzeko.
- Prestakuntza bakoitzeko berariazko materiala: gps, pulsometro, etab.
- Publizitate enarak.

2.3. INFORMATIKA BALIABIDEAK

Aplikazioa


Eguneroko kudeaketa tresna honen bitartez egiten da. Izen-emateak, jardueren datuak, ebaluaketak, estatistikak, diplomak, buletinaren bidalketa, etab.



The screenshot shows a web application interface for 'Escuela Vasca del Deporte'. It features a sidebar with navigation links like 'Inicio', 'Escuela Vasca del Deporte', 'Actividades Formativas', 'Consultas', 'Reservaciones', 'Accreditaciones', 'Lista de Distribución', 'Estadísticas', and 'Bibliografía'. The main content area is titled 'CONSULTA DE ACTIVIDADES FORMATIVAS' and contains a search form with filters for 'Actividad', 'Tipo de Actividad', 'Ámbito del deporte', 'Modalidad/Especialidad', and 'Nivel'. Below the search form is a table listing activities with columns for 'Código', 'Actividad', 'Edición/Act./Canc.', 'F.Inicio', and 'F.Fin'. The table lists various activities such as 'Bloque Común de Nivel I (2009-06) Donostia - Castellano', 'Bloque Común de Nivel I (2010-01) Getxo - Castellano', 'Bloque Común de Nivel I (2010-02) San Sebastián - Euskara', 'Bloque Común de Nivel II (2009-01) San Sebastián - Castellano', 'Bloque Específico de Nivel I en Natación (2009-02) Bizkaia', 'Bloque Específico de Nivel I en Piragüismo (2009-02)', 'Curso avanzado en marketing & management del surf y deportes de deslizamiento', 'Curso de shape de salas', 'Jornadas sobre deporte, Internet y redes sociales', and 'Jornadas sobre meteorología y oceanografía aplicadas al surf y a los deportes náuticos'. At the bottom of the table, it indicates 'Registros 1 - 10 De 14' and a 'Siguiente >>' button. Below the table are buttons for 'Nuevo', 'Modificar', 'Eliminar', 'Act/Desc', 'Áreas', and 'Copiar'.

Web gunea

Oraingoa hirugarren bertsioa da. Web gune honen bitartez izen-emateak egin daitezke, prestakuntza eskaintza kontsultatu, notak ikusi, dokumentazioa deskargatu...



2.4. INSTALAKUNTZAK

Kirolaskola Getxon kokatuta dago.



Avda. de los Chopos, s/n 48992 Getxo

Tlf. 944304867 Fax. 944309011 E-mail kirolaskola@ej-gv.es

Kudeaketa-lana eta prestakuntza-jarduerak aurrera eramateko honako instalakuntzak ditu bere egoitzan:

- Idazkaritza-bulegoa.
- Teknikarien bulegoa.
- Ikastaroak emateko 2 gela, 50 eta 30 ikasle-kopurukoak.

Honetaz gain, Getxotik kanpo egiten diren jarduerak aurrera eramateko dagokion tokian instalakuntzak erabiltzen dira, akordio edo alokairu bidez adostuta.

2011 ikasturtean zehar burututako ekintzen banaketa geografikoa:


EKINTZA	LURRALDEA	ZK	TOKIA
Bloke Komuna I Maila	Bizkaia	4	Getxo / Kirolaren Euskal Eskola
	Gipuzkoa	3	Donostia-San Sebastián / Kirol Etxea
	Araba	2	Vitoria-Gasteiz / Lakua Gizarte Etxea
	On Line	2	Durango / Kirolene
	Urrutitik	2	Getxo / Kirolaren Euskal Eskola
Bloke Komuna II Maila	Bizkaia	1	Getxo / Kirolaren Euskal Eskola
	On Line	1	Durango / Kirolene
	Urrutitik	1	Getxo / Kirolaren Euskal Eskola
Etengabeko prestakuntza	Araba	1	Vitoria-Gasteiz / Lakua Gizarte Etxea
	Bizkaia	3	Getxo / Kirolaren Euskal Eskola
			Bilbo / Deustuko Udal Gunearen Kzgunea
	Gipuzkoa	2	Donostia- San Sebastian / Kirol Etxea
			Donostia / Ernest Lluch Kultur Etxea

2.5. BALIABIDE EKONOMIKOAK


Gastua, urte batean, % 40 jaitsi da, batez ere Kirolaskolaren kudeaketa eredua aldatu delako, zeren eta 2010. urtearen bukaeraz geroztik Eusko Jaurlaritzako bertako langileek baitaramate kudeaketa lan hori.

URTEA	GUZTIRA
2005	265.378 €
2006	247.115 €
2007	335.551 €
2008	294.989 €
2009	302.190 €
2010	269.725 €
2011	161.262 €

GASTUAK URTEKA



2011	
GAIA	GUZTIRA
Kanpoko langileak (kudeaketa)	- €
Prestakuntza-jarduerak	52.001 €
Barne langileak	107.174 €
Kudeaketa-baliabideak	2.087 €
Publizitatea	- €
Argitalpenak	- €





PRESTAKUNTZA


3. PRESTAKUNTZA

3.1. PRESTAKUNTZA OFIZIALA:


Igaroaldiko prestakuntza-jarduerak (entrenatzaile-ikastaroak)

Dagokion mailaren diploma lortzeko bloke komuna, bloke espezifikoa eta praktikaldia gainditzea beharrezkoa da. Aurten 19 joko-molde edo espezialitate ezberdinetako 104 diploma banatu dira.

DIPLOMAS	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Zaldiketa	18	4	9	6	8	3	6
Atletismoa	7	3	0	0	0	0	0
Piraguismoa	7	12	10	42	15	27	19
Hegats-igeriketa	3	0	0	0	2	0	0
Igeriketa	0	9	35	29	23	31	32
Errugbia	0	5	0	0	0	0	0
Kirol-urpekaritza	0	5	0	0	11	8	19
Arraunketa	0	20	2	17	9	18	1
Bela	0	7	1	0	0	0	0
Gimnasia erritmikoa	0	0	5	6	0	3	13
Euskal pilota	0	0	16	1	1	4	2
Surfa	0	0	21	8	7	25	4
Bodyboard	0	0	4	4	1	0	1
Txirrindularitza	0	0	7	3	2	4	1
Tiro olinpiarra	0	0	10	0	0	0	0
Karatea	0	0	8	7	5	9	4
Tenisa	0	0	0	10	4	0	0
Parapentea	0	0	0	4	5	1	1
Taekwondo	0	0	0	0	10	2	1
TOTAL	35	65	128	137	103	135	104



DIPLOMAK MODALIDADEKA 2011



Guztira, orain arte 707 diploma banatu dira.

Bloke komunak


Hau da 2011an antolatu diren bloke komun guztien laburpena.

	Matrikulazioak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
I MAILA			
GETXO	39	4	35
GASTEIZ	26	11	15
DONOSTIA	30	6	24
GETXO	11	3	8
GETXO	41	17	24
DONOSTIA	32	10	22
GASTEIZ	26	9	17
ON LINE - KIROLENE	34	10	24
DONOSTIA	23	6	17
GETXO	37	5	32
ON LINE - KIROLENE	32	10	22
URRUTITIK	39	10	29
URRUTITIK	38	8	30
II MAILA			

GETXO	13	2	11
ON LINE - KIROLENE	33	10	23
URRUTITIK	29	9	20
GUZTIRA 2011	483	130	353

Entrenatzaile-ikastaroak arautzen dituen abenduaren 7ko 3186/2010 EDU Agindu berriak dioenez, aurreko agindua indarrean zegoenean prestakuntza hasi zuten pertsonak behartuta daude beren prestakuntza osorik burutzera 2012ko otsailaren 1a baino lehen. Beraz, bloke komun edo espezifiko bat egina zuten pertsonak 2012ko urtarrilaren 31ra arteko epea zuten falta zen blokearekin beren prestakuntza osatzeko. Egoera horrek hartarata, inoiz baino bloke komun gehiago antolatu behar izan dira urte berean, behin hasitako prestakuntza hori behar bezala amaitu ahal izateko.


BLOKE KOMUNAK URTEKA



Matrikulazioak bloke komunetan


Eta horren ondorioz, bloke komun gehiago antolatu zirenez gero, matrikula-kopurua ere % 112 hazi da.

BLOKE KOMUNETAKO MATRIKULAZIOAK



Horrek guztiak honako matrikula-ratioa ekarri du, bloke komun bakoitzeko:


IKASLE KOPURUA BLOKE KOMUNEKO




Matrikulazioak jatorrizko lurraldearen arabera

Bizkaia da, beste urte batez, ikasle gehien dituen probintzia; gero Gipuzkoa dator, eta, azkenik, Araba. Azpimarratzekoa da 2011. urtean ia Arabatik bezainbeste etorri direla ikasleak beste erkidego batzuetatik.

BLOKE KOMUNETAKO IKASLEEN JATORRIA 2011




BLOKE KOMUN GUZTIETAKO IKASLEEN JATORRIA




Matrikulazioak hizkuntzaren arabera

Gaztelaniazko bloke komunek nagusi izaten jarraitzen dute. Hamasei ikastaroetatik, hiru izan dira euskaraz. Behera egin du euskarazko matrikulen kopuruak.

BLOKE KOMUNETAKO MATRIKULAZIOAK HIZKUNTZAKA




BLOKE KOMUNETAKO % MATRIKULAZIOAK HIZKUNTZAKA




Matrikulazioak generoaren arabera

Apur bat igo da bloke komunetan matrikulatu diren emakumeen kopuruak, aurreko urtearen aldean.

MATRIKULAZIOAK GENEROKA



% MATRIKULAZIOAK GENEROKA



Ebaluazioa

Ikasleek¹ irakasleei buruz egin duten balorazioa oso positiboa izan da. Goraipatzekoa da ikasleek ematen dioten onarpena irakasleek gaiaren gainean duten ezagupenari eta duten euskara mailari, azken hori, ikastaroak euskaraz eman denean.

EBALUAZIOA		2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
1	Saioetan gaiak era ulergarrian azaldu dira	4,01	3,83	3,99	3,94	4,00	3,97	3,97
2	Irakasleek ongi ezagutzen zuten gaia	4,51	4,32	4,49	4,58	4,45	4,46	4,26
3	Irakasleak ikasleen beharrak asetzen ahalegindu dira	4,27	4,05	4,20	4,22	4,21	4,21	4,08
4	Saioak ongi prestatu eta antolatuak izan dira	4,09	3,92	4,05	4,12	4,09	4,06	4,01
5	Saioetan denbora ongi aprobetxatu dugu	3,90	3,85	3,98	4,06	3,99	4,05	3,97
6	Erabilitako testuak erabilgarriak dira	3,74	3,75	3,74	3,75	3,79	3,70	3,75
7	Irakasleen euskera maila zuzena da (euskeraz irakatsi bada)	4,27	4,13	4,22	4,38	4,33	4,48	4,72
Batezbestekoa		4,11	3,97	4,09	4,15	4,12	4,13	4,11

¹ Balorazio eskala: 1. Ez nago batere gustura, 2. Ez oso gustura, 3. Hainbestean, 4. Gustura, 5. Oso gustura

¹ Balorazio eskala: 1. Ez nago batere gustura, 2. Ez oso gustura, 3. Hainbestean, 4. Gustura, 5. Oso gustura

3.1.2. BLOKE ESPEZIFIKOAK


Bloke espezifikoen sustatzaileak kirol modalitate edo espezialitate bakoitzeko Euskadiko (edo Espainiako) federazioak dira. Kiroleskolak jardueretarako baimena ematen du, eta haiek ikuskatzeko eta kontrolatzeko lanak egiten ditu, kirol prestakuntzaren arloan indarrean dagoen legedia betetzen dutela egiaztatzeko.

Bloke espezifikokoak emateko, 34 eskabide jaso ditugu. Biri baimena ukatu zaie, eskabidea epez kanpo egiteagatik; beste bi ikastaro ez dira egin beste arrazoi batzuegatik, eta osotara 30 ikastaro egin dira.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Jasotako eskaerak	36	25	20	11	17	18	34
Baimenduak	21	21	19	11	17	18	32
Ez baimenduak	15	4	1	0	0	0	2
Egindakoak	9	14	12	6	14	13	30

Igaroaldiko ikastaroari buruzko araudi-aldaketaren ondorioz, bloke espezifikoen kopurua, 2011. urtean, % 138 hazi da aurreko urtearen aldean.

EGINDAKO BLOKE ESPEZIFIKOAK



Ondorengo taulan 2011an burututako bloke espezifikoek datuak azaltzen dira:

	Matrikulazioak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
I MAILA			
Arrauna	29	5	24
Tenisa	12	0	12
Judoa	24	6	18
Irristaketa	24	12	12
Padela	30	2	28
Xakea	9	2	7
Mahai Tenisa	10	2	8
Arku Jaurtiketa	6	2	4
Euskal Pilota	18	2	16
Euskal Pilota	15	1	14
Igeriketa Bizkaia 1	23	3	20
Igeriketa Bizkaia 2	24	11	13
Igeriketa Araba	21	8	13
Igeriketa Gipuzkoa	20	12	8
Igeriketa Bizkaia 3	14	3	11
Zaldiketa 1	27	19	8
Zaldiketa 2	28	17	11
Txirrindularitza	5	0	5
Kirol Urpekaritza	10	0	10
Piraguismoa	25	7	18
Taekwondo	15	6	9
Karatea 1	8	2	6
Karatea 2	10	3	7
Gimnasia Erritmikoa	8	8	0
Surf-a 1	13	0	13
Surf-a 2	11	0	11
Surf-a 3	13	2	11
Surf-a 4	8	1	7
II MAILA			
Karate	7	2	5
Gimnasia Erritmikoa	10	9	1
Arrauna	15	1	14
GUZTIRA 2011	492	148	344


Ondorengo ikastaroak ez dira burutu dagokion baimena eduki arren:

- I maila: surfeko bat eta igeriketako beste bat (Gipuzkoa)

Lehenengo aldia da EAEn igaroaldiko prestakuntza-jardueretan lau kirol hauek eman direna: mahai-tenisa, arku-tiroa, padela eta judoa.


Matrikulazioak bloke espezifikotan

Bloke espezifikotako matrikulazioetan gorakada aipagarria eman da, %166a 2010. urtearekin alderatuta.




Igeriketa, hipika eta surfa dira ikasle gehien erakarri dituzten modalitateak. Nabarmendu beharrekoa da arraunketa, gimnastika erritmikoa eta karatea izan direla II. mailako bloke espezifikokoak izan dituzten modalitate bakarrak.

I MAILAKO MATRIKULAZIOAK MODALITATEKA 2011




II MAILAKO MATRIKULAZIOAK MODALITATEKA 2011




Generoa bloke espezifikoetan

Bloke komunetan bezala, emakumeen partaidetza portzentaia biziki igo da 2010. urtearekin alderatuta.

BLOKE ESPEZIFIKOETAKO MATRIKULAZIOAK GENEROKA



BLOKE ESPEZIFIKOTAKO % MATRIKULAZIOAK GENEROKA



3.2. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

3.2.1. KIROLAREN EUSKAL ESKOLAK SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZAK


Zenbait jarduera egin dira kirolaren kudeaketaren alorrean, errendimenduaren alorrean eta kirola ikertzeko beste ikuspegi batzuekin loturikoetan. Ez da jarduerarik egin osasunarekin, aisialdiarekin edo heziketa edo integrazio sozialarekin loturiko alorretan.

ESPARRUA	Prestakuntza-jarduera	Matrikulazioak	Itxarote-zerrenda	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Irakasleak
KUDEAKETA	Berritu eta Kudeatu. Ezagutza Kirol Erakundeetan.	43	-	8	35	Asier Viteri Iñigo Ugarte
	Kirol Kudeatzailearen Arriskuak	55	-	16	39	Borja Oses Javi Aldazabal Juanxo Landaberea Koldo Irurzun
KIROL- IKASKETETARAKO BESTELAKO IKUSPEGIAK	Nola Portu Zure cunea Internetan Sare Soziala Erabiliz. Bilbo	7	-	1	6	Naiara Pérez de Villarreal Julen Iturbe
	Nola Portu Zure cunea Internetan Sare Soziala Erabiliz. Gasteiz	8	-	1	7	Naiara Pérez de Villarreal Julen Iturbe
	Nola Portu Zure cunea Internetan Sare Soziala Erabiliz. Donostia	10	-	4	6	Naiara Pérez de Villarreal Julen Iturbe
ERRENDIMENDUA	Kirol Coaching-. Ezagutza-tailerra.	24	13	0	24	Imanol Ibarrondo
GUZTIRA		147	13	30	117	

Burututako jarduerak

i2010. urtean bezala, ez dira etengabeko prestakuntza-jarduera asko antolatu; 6 baino ez dira burutu. Kiroleskolak 2011. urtean zehar bloke komunak antolatzeko eta kudeatzeko erabili duen denbora handiak ez du astirik utzi etengabeko prestakuntza-jarduera gehiago antolatu ahal izateko.


ETENGABEKO PRESTAKUNTZA JARDUERA KOPURUA URTEKA



Matrikulazioak etengabeko prestakuntzan



Etengabeko prestakuntzako jardueren matrikula-kopuruak behera egin du % 28, aurreko urtearen aldean.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAKO
MATRIKULAZIOAK URTEKA



Generoa etengabeko prestakuntzan

Emakumeen parte hartzeak jarraitzen du oso apala izaten eta, gainera, beheranzko joera bat erakusten du, txikia bada ere.



Ebaluazioa

A pesar de un ligero descenso, la valoración² de la formación continua es una vez más muy positiva, más incluso que la de los bloques comunes. Se valora especialmente el conocimiento de la materia por el profesorado.

EBALUAZIOA		2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
1	Saioetan gaiak era ulergarrian azaldu dira	4,57	4,31	4,48	4,42	4,34	4,44	4,40
2	Irakasleek ongi ezagutzen zuten gaia	4,84	4,66	4,72	4,72	4,61	4,72	4,60
3	Irakasleak ikasleen beharrak asetzen ahalegindu dira	4,63	4,68	4,64	4,56	4,49	4,51	4,50
4	Saioak ongi prestatu eta antolatuak izan dira	4,52	4,42	4,51	4,37	4,29	4,48	4,38
5	Saioetan denbora ongi aprobetxatu dugu	4,42	4,26	4,41	4,32	4,17	4,35	4,26
6	Erabilitako testuak erabilgarriak dira	-	4,08	4,09	4,17	4,05	4,30	4,05
7	Irakasleen euskera maila zuzena da (euskeraz irakatsi bada)	-	-	5,00	-	4,67		
Batazbestekoa		4,60	4,40	4,55	4,42	4,37	4,47	4,36

² Balorazio eskala: 1. Ez nago batere gustura, 2. Ez oso gustura, 3. Hainbestean, 4. Gustura, 5. Oso gustura


3.2.2. PUBLIZITATUTAKO JARDUERAK

Kirolaskolaren funtzioen artean dago kirolaren inguruko prestakuntza-programak planifikatzea eta koordinatzea. Horretarako, jasotzen dira kirol-teknikari, -epaile edo -kudeatzaileei zuzendutako prestakuntza jardueren datuak, edozein erakundek antolatutakoak. Ekintza katalogatu ondoren, informazioaren hedapena egiten da web gune, buletin eta katalogoaren bidez, kirolarekin harremana duen ahalik eta pertsona kopuru handienara iritsi dadin.

2011. urtean, Kirolaskolak ahalegin berezia egin du EAEko edozein kirol-entitatek antolatzen dituen prestakuntza-jarduerak ezagutarazteko, eta horren ondorioz, % 348 hazi da iragarritako jardueren kopurua.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Publizitatutako jarduerak	17	35	35	51	77	45	202

PUBLIZITATUTAKO JARDUERAK





KUDEAKETA

4. KUDEAKETA

4.1. HITZARTUTAKO ERAKUNDEAK

Hitzartutako erakundeetako kideek hobariak dituzte ikastaroen prezioetan. Bloke komunaren kasuan euro bateko hobaria ezartzen da orduko. Beste batzuen artean, hitzartutako erakundeak dira ondoren adierazten diren federazio guztiak. Euskal Herriko Unibertsitatea ere hitzartutako erakundea da, unibertsitateko aukera askeko kredituak amortizatzeko entrenatzaile ikastaroetan gaitutako kredituak onartzen dituelako.

Hitzartutako erakundeak
Euskadiko Euskal Pilota Federazioa / Federación de Euskadi de Pelota Vasca
Euskadiko Ur-azpiko jardueretako Federazioa / Federación Vasca de Actividades Subacuáticas
Euskadiko Atletismo Federazioa / Federación Vasca de Atletismo
Euskadiko Gimnastika Federazioa / Federación Vasca de Gimnasia
Euskadiko Zaldiketa Federazioa / Federación Vasca de Hípica
Euskadiko Herri Kiroletako Federazioa / Federación Vasca de Juegos y Deportes Vascos
Euskadiko Karate Federazioa / Federación Vasca de Karate
Euskadiko Igeriketa Federazioa / Federación Vasca de Natación
Euskadiko Piragüismo Federazioa / Federación Vasca de Piragüismo
Euskadiko Arraun Federazioa / Federación Vasca de Remo
Euskadiko Errugbi Federazioa / Federación Vasca de Rugby
Euskadiko Surf Federazioa / Federación Vasca de Surf
Euskadiko Tiro Olinpiarreko Federazioa / Federación Vasca de Tiro Olímpico
Euskadiko Bela Federazioa / Federación Vasca de Vela
Euskadiko Txirrindularitza Federazioa / Federación Vasca de Ciclismo
Euskadiko Irristaketa Federazioa / Federación Vasca de Patinaje
Euskadiko Tenis Federazioa / Federación Vasca de Tenis
Euskadiko Xake Federazioa / Federación Vasca de Ajedrez
Euskadiko Taekwondo Federazioa / Federación Vasca de Taekwondo
Euskadiko Mahai-Tenis Federazioa / Federación Vasca de Tenis de mesa
Euskadiko Arku Jaurtiketa Federazioa / Federación Vasca de Tiro con Arco
Euskadiko Judo eta Kirol Elkartuen Federazioa / Federación Vasca de Judo y Deportes Asociados
Gazte-Txartela
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco


4.2. MERITU, ESKARMENTU ETA AURREKO PRESTAKUNTZEN AITORMENA

Alde batetik zenbait ikasle, aurreko federazio-prestakuntzak egiaztatuz, igaroaldiko entrenatzaile-ikastaroetan sar daitezke. Bestetik, beste ikasle batzuk, jarduera fisiko eta kirolaren alorreko irakaskuntza ofizialak egiaztatuz, bloke komuneko gairen bat edo guztiak konpentsazio bidez gaindi ditzakete.

Bai bloke komunak bai espezifikoak ugaritu direnez, 2011n egindako aitorpenen kopurua ere handitu egin da, 2010aren aldean.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Aitorpen kopurua	73	93	44	28	30	30	71

AITORPENEN KOPURUA URTEKA



4.3. IKUSKARITZAK

Bloke espezifikoen heziketa kalitatea egiaztatu eta bermatu asmoz, prestakuntza zentroetara hainbat ikuskaritza eta bisita egin ditugu. Ikuskaritzak soilik bloke espezifikoetan saioetan burutu dira.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Sarrera frogen ikuskaritzak	5	4	7	0	6	4	0
Klaseen ikuskaritza	8	11	4	3	6	5	31
Azterketen ikuskaritzak	5	6	3	1	4	0	0
Praktikaldien ikuskaritzak	1	1	1	1	2	0	0
Guztira	19	22	15	5	18	9	31

4.4. KOMUNIKAZIOA

Web gunea, katalogo-digitala eta hileroko albiste-buletina dira Kirol-eskolak bere lana ezagutzera emateko eta bere erabiltzaileak eta oro har gizarte osoa informatzeko dituen tresnak.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Bidalitako buletin digital kopurua	9	9	12	11	10	5	10
Web gunean argitaratutako berri kopurua	16	11	14	9	14	5	1

Web-gunea

Kirol-eskolaren web-guneak 2011. urtean inoiz baino bisita gehiago jaso ditu.

	2008	2009	2010	2011
Web-bisita	2.779	10.917	10.165	13.293

Katalogo digitala

Ez da katalogo digitalik egin 2011. urtean zehar.


Albiste-buletin digitala

Erraza eta atseginagoa egin asmoz, buletin digitala etengabe berrituz doa. EEako edozein kirol prestakuntza ekintza komunikatzeko oinarritzko tresna da. Urte honetan sekzio berriak gehitu zaizkio "prestakuntza jarduerak" sekzio nagusiari: prestakuntza-dokumentazioa (apunteak, liburu digitalak eta abar), prestakuntzarekin loturiko legedia, albisteak, diru-laguntzak...

Buletin digital hau, guztira, **4971 helbidetara** bidaltzen da:

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Buletina jasotzen duen helbide kopurua	743	2021	2727	3028	3622	4202	4971

BULETINA JASOTZEN DUTEN KONTAKTU KOPURUA





LABURPENA


5. LABURPENA

5.1. ESTATISTIKAK

URTEA	MATRIKULAZIO KOPURUA		
	BLOKE KOMUNAK	ETENGAEKO PRESTAKUNTZAK	GUZTIRA
2005	280	21	301
2006	338	350	688
2007	255	239	494
2008	203	225	428
2009	249	344	593
2010	227	205	432
2011	483	147	630
Guztira	2035	1531	3566


Matrikulazioak prestakuntza ofizialetan / Bloke komuna

BLOKE KOMUNETAKO MATRIKULAZIOAK



Matrikulazioak etengabeko prestakuntza-jardueretan


ETENGABEKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAKO MATRIKULAZIOAK URTEKA




Urtea	Jarduera kopurua		
	Sustatuta	Onartuta	Publizitatuta
2005	10	21	17
2006	19	21	35
2007	18	19	35
2008	18	11	51
2009	17	17	77
2010	11	18	45
2011	22	33	202
Guztira	115	140	462

Ekintza kopuruaren garapena


KIROLESKOLAK SUSTATUTAKO JARDUERAK




BAIMENDUTAKO JARDUERAK



PUBLIZITATUTAKO JARDUERAK




Sustatutako ekintzen banaketa 2011




Urtea	Prestakuntza ordu-kopurua			
	Bloke komunak	Etengabeko prestak.	Graduondoa	Guztira
2005	392	10	0	402
2006	429	97	0	526
2007	368	56	0	424
2008	368	97	0	465
2009	319	127	189	635
2010	270	60	0	330
2011	795	52	0	847

Prestakuntza ordu-kopuruaren garapena




Prestakuntza ordu-kopuru banaketa

BLOKE KOMUNETAKO ORDUAK



ETENGABEKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAKO ORDUAK



5.2. ONDORIO OROKORRAK

- 1 - Kiroleskola abian jarri zenetik hona, 2011 izan da jarduera gehien bultzatu dituen urtea eta prestakuntza-ordu gehien eskaini dituen. Jarduera propioetan matrikula gehien izandako bigarren urtea dugu 2011.
- 2 - Bere ibilbidea hasi zenetik, Kirol eskolak jarduera gehien (bloke espezifikoak) baimendu dituen urtea izan da 2011.
- 3 - Arau-aldaketaren ondorioz (EDU/3186/2010 Agindu berria), 2011 izan da Kirol eskolak eta kirol-federazioek bloke komun gehien (16) eta bloke espezifiko gehien (30), hurrenez hurren, antolatu dituzten urtea. Gainera, gehikuntza bat gertatu da matrikula-kopuruan 2010aren aldean: % 112 bloke komunetan, eta % 166 bloke espezifikoetan.
- 4 - 2011. urtean, ordura arte prestakuntza-jarduerarik izan ez zuten igaraldiko lau kirol-modalitateetarako entrenatzaile ikastaroak baimendu ditu Kirol eskolak: judoa, arku-tiroa, mahai-tenisa eta padela.
- 5 - Dena dela, erkidegoko federazio propioa duten kirol-modalitate batzuek jarraitzen dute EAEko igaraldiko prestakuntza-jarduerarik egin gabe:

EAEEn entrenatzaile-prestakuntza ofiziala oraindik eskeini ez duten kirol-modalitateak	
1. Automobilismoa	12. Halterofilia
2. Badminton	13. Herri-Kirolak
3. Beisbol y Softbol-a	14. Hockeya
4. Billarra	15. Borroka eta Sanbo
5. Boloak	16. Motoziklismoa
6. Boxeo	17. Arrantza eta Kasting-a
7. Ehiza	18. Petanka
8. Negu-kirolak (Izotz-kirolak)	19. Squasha
9. Esgrima	20. Triatloia
10. Ur-eskia	21. Boleibola
11. Golfa	22. Kirol egokituaren espezialitateak

- 6 - Kirol-federazioek ikastaro gehiago egin dituztenez, egin beharreko ikuskapenak ere ugartu egin dira, nahiz eta horiek guztiak osorik egin diren bloke espezifikoaren saioetan, eta ez sarrera-probetan, azterketetan edo praktikan.

- 7 - Kirol-eskolak etengabeko prestakuntzako sei jardura baino ez ditu antolatu. Horren azalpena da nahitaezko bloke komunak antolatzeko lanari ekin behar izan diola, eta horrek arreta eskatu diola.
- 8 - Bere ibilbidea hasi zenetik, Kirol-eskolak beste entitate batzuen jardura gehien baimendu dituen urtea izan da 2011. Kirol-eskolaren weborriaren bidez eta informazio-buletinaren bidez iragarritako jardueren kopurua % 348 handitu da.
- 9 - Garrantzi handiagoa eman zaio Kirol-eskolaren informazio-buletinari, EAEko kirol-prestakuntzaren zabalkunderako tresna gisa. Buletinaren aldizkakotasuna handitu egin da (hilean behin, udaldian izan ezik) eta sekzio berriak gehitu zaizkio "prestakuntza jarduerak" orain arteko sekzio nagusiari: prestakuntza-dokumentazioa (apunteak, liburu digitalak eta abar), prestakuntzarekin loturiko legedia, albisteak, diru-laguntzak...
- 10 - 2011 izan da Kirol-eskolaren webguneak bisitari gehien izan dituen urtea. Aldiz, webgunean albiste bakar bat iragarri dela esan behar da.
- 11 -Emakumeen matrikula-kopuruak jarraitzen du nahiko eskasa izaten gizonetako aldean, bai igarotako jardueretan bai etengabeko prestakuntzakoetan.
- 12 -Euskararen presentzia gaztelaniazkoarena baino nabarmen apalagoa da bloke komunetan, eta hutsaren hurrengoa izan da etengabeko prestakuntzan eta bloke espezifikoetan.
- 13 -Etengabeko prestakuntzaz eta bloke komunez ikasleek egin duten balorazioa oso positiboa da, beste urte batez ere.
- 14 -Bere langileengan oinarritutako kudeaketa-eredu baterako aldaketa egin ondoren, Kirol-eskolak ikusi du nola 2011ko gastuak % 40 murriztu diren 2010aren aldean (eta % 46 2009aren aldean), eta, guztiarekin ere, jardura eta matrikula-kopuruari eutsi bakarri ez, handitu egin da, dezente handitu ere.

*kirolaren
euskal eskola*